

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
<p><b>1. Eragiketen propietateak eta identitate aljebraikoak baliatuz, bigarren mailatik gorako ekuazioak eta haiekin erlazionatutako problemak ebatzi.</b></p>	<p>1.1. <i>Polinomioak faktorizatu ditu, metodo egokiena baliatuz: biderkagai komuna, identitate nabarmena eta Ruffineren araua.</i></p> <p>1.2. <i>Adierazpen aljebraiko konplexu batetik abiatuz, beharrezkoa den kasuetan identitateak eta eragiketen propietateak zuzen aplikatu ditu bigarren mailako ekuazioen adierazpen orokorrak lortzeko.</i></p> <p>1.3. <i>Bigarren mailatik gorako ekuazio polinomikoak ebatzi ditu, beharrezkoa den kasuetan "aldagai aldaketa" eginez.</i></p> <p>1.4. <i>Bigarren mailatik gorako ekuazioekin erlazionatutako problemak modelizatu eta ebatzi ditu, problemen ebazpenerako eredu jarraituz.</i></p> <p>1.5. <i>Bigarren mailatik gorako ekuazioekin erlazionatutako problemetan, soluzioen egokitasuna eztabaidatu eta behar bezala komunikatu du.</i></p>
<p><b>2. Eguneroko bizitzako hainbat egoera ekuazio-sistemen, inekuazioen eta inekuazio-sistemen bidez modelizatu, grafikoki zein aljebraikoki, eta modelo horiek eraldatuz eta interpretatuz problema ebatzi eta soluzioa adierazi, hainbat adierazpenen molde baliatuz.</b></p>	<p>2.1. <i>Ekuazio-sistema linealen koefizienteak eta adierazpen grafikoko erlazioak erlazioatu ditu eta, haiek aztertuz, sistemaren soluzio kopurua eta zuzenen kokapen erlatiboa ondorioztatu eta arrazoitu ditu.</i></p> <p>2.2. <i>Ekuazio-sistema linealak eta ez-linealak, inekuazioak eta inekuazio-sistemak ebatzi ditu, grafikoki (esku zein Geogebra bidez) zein aljebraikoki, kasuan kasu ebazpen-metodo onena aukeratuz eta emaitza egoki interpretatuz eta esanahi geometrikoa ezagutuz.</i></p> <p>2.3. <i>Ekuazio-sistemekin, inekuazioekin eta inekuazio-sistemekin erlazionatutako problemak modelizatu eta ebatzi ditu, problemen ebazpenerako eredu aintzat hartuz. Problema soluzioaren egokitasuna baliotsi eta komunikatu du.</i></p>
<p><b>3. Eguneroko bizitzako egoeretan planoko hainbat elementu duten presentziaz ohartu, haien osagaiak eta ezaugarriak identifikatu eta elementu horiek aljebraikoki zein grafikoki adierazi.</b></p>	<p>3.1. <i>Bektoreen arteko eragiketak egin (grafikoki zein analitikoki) eta haiekin erlazionatutako problemak ebatzi ditu, problemen ebazpenerako urratsak aintzat hartuz.</i></p> <p>3.2. <i>Zuzenak planoan dituen ekuazioak identifikatu ditu eta zuzenaren puntu bat eta norabide bektore batetik abiatuz, ekuazioen arteko eraldaketak egin eta zuzenak adierazi eta bereizten ditu: bektoriala, parametrikoa, jarraitua, orokorra, esplizitua eta puntu-malda. Zuzenak irudikatzen ditu edozein egoeran emanda daudela ere.</i></p> <p>3.3. <i>Zuzenaren ekuazio mota batetik abiatuz besteak lortzeko eraldaketak egiten ditu. Paralelo eta perpendikularrak diren egoerak planteatzen eta ebazten ditu.</i></p> <p>3.4. <i>Software egokia erabiltzen du kalkulu aljebraikoak egiteko eta grafikoki adierazteko.</i></p>